


Ume eta gaztetxoei babes berezia eskaintzen die Zuzenbideak eta eskaini behar die Arartekoak, adin txikikoek hiritar guztien eskubidez gainera eskubide bereziak baitituzte. Hala ere, eskubide horien kontra erasoak salatzeko orduan, ez dira ausartegiak adin horretakoak. Horregatik kanpaina bati ekin dio Arartekoak.



Juan San Martín, Euskal Autonomi Elkartearen lehen Arartekoa.

# Arartekoa: "Gazteek ez dituzte kexak aurkezten"

**J**UAN San Martín da Euskal Autonomi Elkartearen lehen Arartekoa. Eibartarra, euskaltzaina, idazle oprobria eta mendizale sutsua, gizon apala eta atsegina. Ararteko bezala dagoeneko esperientzia bat ere bildu du eta 1992.an adin gutxidunen aldeko kanpaina bati ekin dio, hauek dituzten eskubideen berri eman.

**-Zein dira adin gutxidunen, ume eta gaztetxoen eskubideak?**

-Helduek dituzten eskubide berak dira, gehi ume edo gazte bezala dituzten eskubideak. Argitara eman dugun poster horretan hamar eskubide jarri ditugu garrantzizkoenak direlakoan, baina behar bada gehiago ere jar genitzakeen.

**-Jaso al duzu, Ararteko zaren epe honetan, adin gutxidun baten kexarik?**

-Ez, zuzenki ume edo gazte batek zuzendutako



Gazteen eskubideen posterra

kexarik ez dut izan, baina zeharka, hau da, helduek umearen ordezkari gisa aurkeztutakoak izan ditugu. Hau ez da zaila ulertzea. Oraindik ume batek ez daki bere eskubideen berri eta gainera beldurra ere ematen dio, zerbait esan edo egin badu, zigorren bat izango ote duen. Horiek dira behar bada kexa zuzenki ez egotearen arrazoiak.

**-Europa nola funtzionatzen dute alor honetan?**

-Hemen dugun legedi berbera dute. Ginebrako 1924eko Umearen Eskubi-

deei buruzko Aitorpenean oinarritzen da lege hori eta gu ere hor barnean gaude. Bertan, jaio aurretik, zein jaio ondoren babes berezia behar duela aitortzen da, hain zuzen ere babes ho-

rren bitartez umea gizaki den aldetik dituen eskubide guztiez gozatzen iritsi ahal dadin.

**-Eta zer esan daiteke kexak aurkezteko Arartekoak dituen mekanismoez?**

-Oso sinplea dela. Kexak aurkezteko ez da dirurik behar, ez eta inolako zigilu edo polizari ere. Eskuz edo idaz-makinaz idatz daiteke, beti ere sinaturik, helbide honetara:

**ARARTEKO**  
Eusko Legebiltzarra.  
Becerro de Bengoa z/g  
01005 GASTEIZ

## Un Ararteko para menores

El Ararteko es una figura legal que también ampara a los menores de edad. Se podría decir incluso que los ampara doblemente, puesto que los niños y los jóvenes son sujetos de derechos especiales. Y, sin embargo, a la hora de presentar denuncia por el incumplimiento de estos derechos, los menores de edad son muy remisos o lo hacen por intermediario de los mayores. De hecho, en la historia de esta institución ningún menor de edad ha presentado una denuncia de forma directa al Ararteko. Esta institución ha iniciado una campaña con la edición de un poster donde dan a conocer los derechos de los menores de edad y en esta entrevista Juan San Martín explica los mecanismos para presentar una denuncia.

## Un "Ararteko" pour les mineurs

L'"Ararteko" ou médiateur est une figure légale qui protège aussi les moins de 18 ans. On pourrait même dire qu'il les protège doublement, car les enfants et les jeunes sont des sujets jouissant de droits spéciaux. Mais cependant, les mineurs sont très réticents au moment de déposer une plainte pour le manquement à un de ces droits, et quand ils le font, c'est par l'intermédiaire des adultes. En fait, depuis que cette institution existe aucun mineur n'a présenté directement une plainte à l'"Ararteko".

Cette institution vient d'ouvrir une campagne en éditant une affiche qui fait connaître les droits des mineurs et dans cette entrevue Juan San Martín explique les démarches à suivre pour déposer une plainte.